

BERTSO BERRI
TA
KANTA ZAR



(I)

BERTSO BERRI TA KANTA ZAR

(I)

NUN ZER

Orialdea

Txeru (erri-kanta)	3
Nere amak ba'leki (Iparragirre'na)	3
Xo ! Xo ! (erri-kanta)	4
Juramentua (Bilintx'ena)	4
Lapur famatua (bertso berriak)	7
Eziñaren negarra (Urre'rena)	10
Aiton baten esanak (Basarri'rena)	11
Sorgin-dantza (E. Arrese'rena)	13
Aberatsak eta pobriak (berso berriak)	14
Edariaren indarrak (R. Artola'rena)	15
Juantxo-bota (P. Arrese-Beitia'rena)	18
Aita San Migel (erri-kanta)	19
Edurra tellatuan (erri-kanta)	20
Ez dezu maite (Satarka'rena)	21
Gernika'ko Arbola (Iparragirre'na)	22
Gure euskera (J. K. Zapirain'ena)	23

Ama Euskerari azken-agurrak (P. Arrese-Beitia'rena)	26
Euskaldun baten kantua (J. K. Gerra'rena)	32
Aiton gizagaixoa (P. M. Otaño'rena)	33
Betiko agur (erri-kanta)	35
Mendian eder (erri-kanta)	35
Gauza mingarria (Pello Zabaleta'rena)	36
Goizean goiz (erri-kanta)	37
Begi ederrak (erri-kanta oso zarra)	38
Egia ete?... (Artadi'rena)	38
Amalau koskabillo (erri-kanta)	39
Santa Ageda abestiak (Amilaitz'ena)	40
Xaguxarra (Udalaizpe'na)	42
Mendi-gaña (Lizardi'rena)	43
Aradera (Otarri'rena)	44
Agur, jaunak! (erri-kanta)	45
Euskera gordetzeko arrazoi ta bidiak (Berridi'na)	45
Atso gezurti bati (Txirrita'rena)	47
Maats-orpoa (erri-kanta)	49
Zorionketaria (P. Ithurralde'rena)	50
Arranbillote (erri-kanta)	52
Bautista Bazterretxe (erri-kanta)	52
Amodio-miña (erri-kanta)	54
Amodioaren pena (erri-kanta)	55
Orra or goiko (erri-kanta)	55
Xori kantazale eijerra (erri-kanta)	56
Eguna zala (erri-kanta)	57
Iru (Iamatxo (erri-kanta)	57
Oraingo neskatxai (Abarrategi'rena)	59
Dantza berriak (P. M. Urruzuno'rena)	61
Ai! ai! ai! (erri-kanta)	63
Aita-semeak (Otaño'rena)	63

TXERTJ

Txeru kartzelan dago,
damia kanpuan;
Txeru'k gura leukela,
ba'leuko albuán.

Txeru!

Artakamara, motxoliñua,
domingillua, lai-rai-lon.

NERÉ AMAK BA'LEKLI...

Zibillak esan naute
bizi-ro egoki,
Tolosa'n biar dala
gauza erabaki.
Giltzapian sartu naute,
poliki-poliki;
negar egingo luke,
nere amak ba'leki.

Jesus tribunalian
zutengan sartu,
etzian Pilatos'ek
kulparik billatu ;
neri ere arkitu ta,
ez dirate barkatu,
zergatik ez dituzte
eskuak garbitu.

Kartzelatik atera,
fiskalen etxera

abisatu ziraten
juateko beriala ;
ez etortzeko geiago
Probintzi onetara;
orduan artu nuen
Santander aldera.

Iparragirre

XO! XO!

Txakurrak, jau!
katuak ñau!
arduak ontara ekarri nau.
Etxean sartzean,
andrea koleraan,
inglesa buruan,
latiña kolkuan,
euskeraz mintzatzen:
—«Gizon zikiña, nun ago gaur?»
—«Xo, xo, Mariatxo,
moxkorra nator ba gaur!»

JURAMENTUA

Begi urdiñak dituzu eta
arpegi zuri gorria,
nere biotzak maite zaituen
aingeru zoragarria.
Zumia bezin biguña eta

mia da zure gerria ;
estutu bage artu liteke
bi eskuakin neurria.

Lengo batian, izar barria,
ongi fortuna nerian,
maite ninduzun galdetu eta
baietz erantzun zenidan ;
pozikan ia zoraturikan
aditu eta segiran,
beso eskuia estutu nuen
zure gerriaren jiran.

Neri begira gelditu ziñan,
burua triste etzanaz;
ni ere zuri begira negon,
Maite neria! esanaz.

Luzaro ala egondu giñan
suspiriuk emanaz,
biok alkarren begietatik
amoriua edanaz.

Ongi penakin askaturikan
zure gerritik besua,
etzait aztuko nola esan nizun:
«Nere maitetxo gozua,
zorionaren ekartzaillea,
izar amoriosua,
izar amoriosua,
zu adoratzen igaroko det
nere bizitza osua.

«Maite nazula len esan dezu:
berriz esan zazu, arren !
Ez naiz entzutez gogo-beteko,

LAPUR FAMATUA

milla bider esan arren;
nun da zeruak erabakia
beste moduz ez dakarren,
denbora gutxi barru gu biok
izango gera alkarren».

Imajiña bat zillarrezkua,
kordoi batekin lotua,
begiz aurrian jarri zenidan
kolkotik ateratua,
zeñetan zegon gurutzeturik'
Jaunaren Seme Santua.
«Onen aurrian —esan zenidan
egizu juramentua».

Faltsiarikan ez zegoela
nere biotz samurrian,
proga emango nizun eguna
arkitzen zala urrian,
begiratua Itnajiñan ta
belaun eskuia lurrian,
juramentua eskeñi nizun
Jaungoikuaren aurrian.
Fintasunakin kunplituko det,
ez da zer egon zalantzez,
denborarikan igaro gabe
gogo txarreko balantzez.
Erakusitzen baldin ba'dizut
faltsiarikan mudantzez,
nere biotza bete dezala
damutasunak arantzez.

Orain kanta berri bat
nai nuke nik jarri
munduko kriaturen
eskarmentagarri;
trantze estu onetan
gutziz nago larri.
nere pasadixuak
esan gabe garbi.

la, nere kristauak.
aditu kontuan,
nere deskalabrua
ze-nolan munduan,
amairu eriotza
urtebet barruan
neskatxa bat motibo
nola egin ditudan.

Ogei eta bost urte
dauzkat nik oraindi,
oraindaño izan naiz
beti neskasari.
Eninduen alperrik
gurasuak azi;
eztiet azkenian
eman pena gutxi.

Ai, au nere suerte
ikaragarria !

Jaunak bere eskutik
nendukan utzia.
Neskatxa bat motibo
izan dan guztia,
amairu personari
kentzeko bizia.

Neri itzak eman-da
bestia ezkondu,
orretzek ematen dit
biotzian damu;
utsa zan sikiera
motibu izan ba'lu,
beragatik bear degu
orain biok galdu.

Bengantza orretikan
gau triste batian,
pufial eta trabuko
arturik aidian,
ondo (oturik nenguan
etsien katian,
derrepente sartu ninñan
beraren etxian.

Afaltzen ai ziraden
senar-emaztiak,
ezkonbarriak eta
ziraden guztiak.

Etziaten ematen
penarik iltziak,
suerte onaren begira
an zeuden tristiak.

Bost puñalara lenen
eman nik berari;
ez Jesus ta ez amen,
juan zan munduti...

Senar tristia zeguan
andriari begira,
baña ezin kendu zun
zedukan erida.

Berari tira nion
petxuaren erdira.
Orra zer pasatu zan
esan det egia.

Senar eta emazle
sukaldian biak,
an gelditu ziraden
derrepente illak.

Ez izan ba'ziraden
sano eta fiñak.
Orra zer suertia
gaizki dabillenak!

Azio au eginda
írten nun etxetik;
Justizia altoka
an nuan atzetik.

Tiratu ta tiratu
nik berfiz gogoti;
lau gizon tiro batez
an ziran erori.

Orra sei eriotza
gau batfan egiñ.
Animak nola ziran
nai nuke nik jakiñ.

Kristauaren biotza
ikaragarria,
gizonari ematen
alako larria!

Utzi zezala bertan
diru ta zaldia,
egin nai ezpa-zuan
munduko aldia.

Zaldiaren gañian
gizon armatua,
abiatu nintzarian
lapur famatua :
atzetikan ba-nuan
nork arrapatua,
baña billatzen nuan
nun ezkutatua.

Partira an zebillen
gau ta egunian ;
enemigua franko
ba-nun inguruan,

ia deskansurikan
ez nendukan iñun;
ala ere zazpi soldau
neronek il nitun.

Urte bete osuan
beti lapur egin,
batzuetan kamiñoz,
bestietan mendin.

Ainbeste eriotza
gañera nik egin,
ez dakit zer gertatu
biar dan nerekin.

Aitak bialdu ziran
neri notizia,
zekiena bezela
asuntu guzia;
erabakia zala
nere sententzia,
arrapatu ezker
kentzeko bizia.

Abiso au artuta
urrengo egunian,
Partirak arrapatu
ninduen mendian ;
zaldia il zidaten
ala>-biarrian,
zortzi soldaduk tira
zidaten batian.

Bi balazo nituen
beso ta buruan,
odola ba-zijuan
iturri moduan;
ala ere trabukua
disparatu nuan,
bi soldadu gañera
eritu nituan.

Lenengo neuri elduak
bi bakarrik ziran,
baleroso izan arren
umildatu nitzan;
bagagiak ar ninduen
loturik zaldian,
zortzi soldadu ziran
nere guardian.

Lotsa asko nintzala
egunen erdian,
juan biar izan nuan
guztien erdian;
allegatu nintzarian
neronen errira,
ba-zan gendia franko
neroni begira.

Ia nere orduko
lotsa ta larria,
zergatik egin neban
asko pikardia.

Bela sartu ninduen
kapilla batian,
Santo Kristo bat para
zidaten aurrian.

Esamiña egiteko
nere apartian,
ia zenbat oker neban
animen kaltian.
«Pekatoriok Ama
Birjiña Maria,
Jaungoikuen aurrian
bitarte aundia.

Jaungoikuen ofentzak
ditut guztiz damu ;
arren, miseriakordia
nizaz izan zazu;
Luzifer lagunakin
azia da zeruan,
pekatuagatikan
dago infernuan.

Ni geiago eginda
bizi naiz munduan,

ez dakit neretzat ere
zer sententzi dagan;
amaika ordu santuak
ia dira aurki,
il biar det eta guztiz
nagotzu ni larri.
Kontua emateko
gure Jesus onari,
adios, mundutarrak,
ta nere aita amari;
senidiakin batian,
adiskide danak:
akabatzen dirade
mundu ontako lanak

Ogei ta bost urtekin
uzten ditut danak:
arren, lagun daidela
gure Jesus onak!

Orra baten okerrak
zenbat kalte ekarri!

Mundu guzia nizaz
eskarmenta bedi.

EZINAREN NEGARRA

Ez gara bardiñak, ta onek eragiñik,
Deutzudan maitasuna nabil gorde nairik ;
Ta itun-larritasuna dabilkit gain-gaiñez,
Ezin baten laiñoak narakar samiñez.

Zure ezpanetan dagon ezti me gozua
Miazka nairik n.ago txit lilluratua ;
Baiña ezti orretan ezpan-ertz gorririk
Nik ez dot, ez, izango jartzeko zoririk.

Len maite zindudan lez, oin be zaitut maite,
Zu zaitut nik amesgai, iñortxorik ez beste.
Zure bikaintasunak nauka zoraturik ;
Zu zakustaz aspaldi, lotan naiz itxarrik.

Baiña igarriz bitarte daukagun eziña,
Itxasoan uiñak lez datorkit samiña.

Vrre

AITON BATEN ESANAK

Ain mate dedan aiton batekin
sarritan ditut tratuak;
Larogei urte ditu oraintxe
beregana inguratuak.
Lengo batean, kalez-kale gu,
biok besotik lotuak,
Urte gutxian aldakuntz asko
nola bai gauden artuak,
Bertsotan jarri nai dizkitzuet
esan zizkidan kontuak.

Gazte maítea —esaten zidan—
gauzak bai oker daudela !
Gu sasoikoak giñan denboran
etziran beintzat onela.
Aundikeri ta lujuko griñak
gaur bai indar daukatela !

Ekaitz gogorrek gure soroak
galtzen dituen bezela...
Sinislu zazu emakumeak
galdu bear gaituztela.

—Baiñan, aitona, ainbat pekatu
al du emakumezkoak?
—Bai, gazte maite, oien jakerak
eztira itxurazkoak.

Berak printzesak bezela jantzi,
zikin etxeko zokoak;
Lanari uzkur, baiña festara,
azkar aldatu zankoak:
Gipuzkoa'ko lengo alabak
etziran orrelakoak.

Gaur ille beltza baldin ba'dute,
biar oria buruan;
Ezpañak eta azkazal gaiñak
piper autsaren moduan;
Usai gozorik entzungo dezu
pasatuz beren onduan.
Gazteak pentsa bear luteke
garai datorren orduan,
Orrelako bat lagun artuta
zer etorkizun dagan.

Nobelak ondo irakurrita
gabez ziñetara irten;
Guraso zarrak negar egiñez
sutondoan itxogiten.
Beren izkuntza bajutzat bota,
ta beste bat itzegiten.

Noizbait ezkondu, ta asitakoan
etxeko lanak egiten...
Sua nolatan pizten dan ere
askok ez dute jakiten.

Musu, betazal ta gaiñontzeko
margo ta autsez beteak,
Apainduri ta lujoz aberats,
jatorduan arloteak;
Etxean falta izaten dira
kanpoan errez boteak;
Zorigaitzeko aundi-nai orrek
ekarri ditun kalteak.
Egun onenak ikusi zitun
gure Gipuzku maiteak!

Basarri

SORGIN-DANTZA

Akelar mendiko atso bildurgarriak
dantzan garabiltza, ja, ja !
sorgin aztiak;
gerade gautiak,
ikaragarriak,
etsai galgarriak,
índartzen gaitu, ja, ja, ja !
sorginkeriak.

Akelar'tik Ernio'ra gau illunian
tximista bezela gatoz,
tximista artian ;
guzion aurrian,

erratzan gamian,
iskanbil aundian,
andre Muskiñ erregiña
dabil aidián,

Karrasi, dear, iji-oju, ardail batera,
oinbeste sorgin, uju-ju-ju!
egan gora-bera ;
odei beltza gera,
inpernu berbera;
auxen da sarrera,

*txibirin-dunba, txistu, txistu,
txibirin-trunka-tankera !*

E. Arrese

ABEBATSAK ETA POBRIAK

Pobria beti dabil abua zabalik,
Lua edo gosia ote dun ez daki;
Auzoko sukaldian lukainkak zintzilik,
Ogei koxk egin-eta, ez lego goserik.

Jan al ba'litzazkite lukainkak zaunkaka,
Pobriak ortarako go.gua ba-dauka.
Zeiñek jan ez, gaiñera, ito ta atzaparka,
Arrautz-talo gurian ogei txerri-anka?

Ara emen pobre bat gizon ausardia,
Adimenean kamuts, kokotza luzia ;
Jango lukela, dio, arkume erdia,
Eta kankarta aundi bat tripakiz betia.

Izoki ta barbarin, lupi ta legatzak,
Oien berri dakite diru aberatsak;
Baiña pobrian txanpon mirri ta lakatzak,
Orren ordaiñez ua, juan-da arrapazak!

Pobria naiz, ez daukat urre ta zillarrik;
Geienian kalia bai nabil ankutsik:
Ez det irrixtatzeko batere bildurrik,
Ez ere orain arte iñon ere zorrik.

Ez da danentzat berdin munduko bizia:
Batzuen zoriona, besteen naigabia.
Pobria da geienik gaizki ikusia,
Eta erdi billosik beti penatzia.

Baiña luza ditzagun gure esperantzak,
Aspalditik esana bai du gure erriak:
Inpernuko legatzak dirala aberatsak,
Ta pobriak, ostera, Zeruko loriak.

Pobre geranok ola kotsola gaitezen;
Beste munduan ezta sosik baliatzen.
Jaunak esan bezela goberna gaitezen,
Zeruko zoriona gero du ematen.

Atzo etorri zaizkit iru mandatari,
Uso txuri polit bat eta aingeru eder bi.
Irurai galde nien: —Zeruan zer berri?
—Aberats gutxi antxe; pobriak ugari,

EDARIAREN INDARRAK

Edari maitagarria,
zugatik daukat jarria
argumentu bat larria ;

indarra zera gorputzarentzat,
kentzen dezu egarria,
gauza estimagarria ;
baiñan zauzkat igarria
zerala engañagarria.

Nik zu nor ziñan ez nekin,
eta gogor nizun ekin,
fiaturikan zurekin;
ixstante batez egin zenduen
nai zenuena nerekin;
biok gera elkarrekin,
kontuak ziran gurekin,
ondoren nor zeran jakin.

Batek lezake espero
ondotxo edan ezkerro,
jarriko duela ero ;
lotsagarri ta lotsarik gabe
ibilliko dala gero,
korajetsu ta bero,
non-nai egiñaz aldero,
modu txarrian biziro.

Indarra edariak du
ezin litekena neurtu,
gizona lezake aurtu.
Ustez tamañan bein edan eta
ninduen oso mozkortu,
itzegin ezin ta gortu;
bista zitzaidan laburtu,
tratu on bat nuen artu.

Gustora edan ba'nuen

ondoren pagatu nuen,
deskalabratu ninduen;
nere ondotik pasa zan batek
galdetu zidan zer nuen,
ia miñen bat al nuen,
nondikan sentitzen nuen,
planta onen bat jo nuen.

Nai ez duenak orditu
eta ondoren eritu,
kontuz edaten aritu.
Edari klase guztiak bere
espirituak ba-ditu;
gure txintxurrak nai ditu,
gustoz edaten baitidu,
naiz gero berak zatitu.

Mudatzen gaitu edanak,
mundu onetan geranak
pruebak daduzka emanak:
jenio txarrak ondutzen ditu,
bai ere gaiztotu onak,
aztu orduan esanak,
eta egindako lanak,
naiz gero damutu danak.

Nere moduan beste bi
edanak sobra edari
buelbaka ziran erori;
altxatu nai ta ezin altxarik,
loitán zebiltzan igari...
Jarri ziran guri-guri,

kasik etziran ageri,
edan baizuten ugari.

Rarnon Artola

JUANTXO-BOTA

Juantxo'k San Antonio'z, igaz Urkiola'n.
Zizpuruka esaten erautsan onelan:
«Lastef San Juan eta, au da eguraldiaj
Uste dot geiso jarri dala eguzkia ;
Atzo danak nai eben argi egiala,
Arpegirik agertu gaur eztagiiala.
Zelan, arrano, egin Jaungoikuak gustu,
Beian nai bada bero, ta emen lainotu?»

Praisko'k albotik diño: «Bero zetarako?
Otz bigun obe ez da erromeriako?»
—«Etzenduke esango olakorik, Praisko,
Ba'zenki nik edarran zer dodan saltzeko».
—«Alan da, azkenengoz urik zeuri igaz
Emen edan ezkeru, ezta egon nigaz.»
—«Jesus, adiskidea ! orrenbesterañ'o?
Zugandik enegana aldea bat-dago,
Urte bete zuk ura edan zenduiala,
Bost barriz nik arduarik probau eztodala.»

Orduan Praisko'k emon eutsan bota andia,
Ilteko ainbat urte eukan egarria;
Eta bere musturra sarturik agoañ,
Eten baga *drangaka* iru minutoan
Ekiñik, itxitean, lo etzan zan landan:
Arratsalde ta gaba an egin ebazan.

Bai, Juantxo arrezkero dago bildurtua
Ardaugaz, nok sartu eutsan larakua,
Galdurik anak eta galdurik burua,
Eragiñik ainbeste ordutako lua.
Klink nozbait egin arren, gaur oi dau neurritik,
Ez dakion larregi joan eztarritik.

*Zeinbatek bear leuken ardurea izan
Ardaua neurtuteko, bai Juantxoren gisan!*

Arrese-Beitia

AITA SAN MIGEL

Aita San Migel Iurreta'ko,
zeru altuko lorea,
Agure zarrak dantzan ikusita
ak egiten yok barrea.
Garai'ko plazan otea lore,
Ermua'n asentzioa.
Dantzan ikasi gura dabena
Barrueta'ra beioa.
Aita Juaniko, seme Periko,
zer dogu aparitako?
Orio-aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko.
Kazuelatxoan intxaur-saltsea
txarra morkoan txunpletin;
eragin eta beti eragin,
atsoak bauke zeregin.

ALTZOLA

Altzola goiti dago, bai Mendaro baiño,
Mutilla merkeago bai neskaxa baiño.
Mutilla nai duenak beretzat erosi,
Arrate'ko zelaian txanponean zortzi.

Onak baldin ba'dira, eztira garesti;
Trarrak baldin ba'dira, ikusi ta utzi.
Lau, bost, sei, sardiña-makallero;
Sei, zazpi, ez gabilta gaizki.

EDURRA TELLATUAN

Edurra tellatuan, abarra basoan,
Taloak erretako uruna auzoan.
Kortan daukagu txal bat azurra ta azal
Aita San Antonio'k loditu dagiala.
Astean bariku bi, zapatua beti,
Domekan okelea auzoan ikusi.
Edurra tellatuan, zakua lepoan,
Ibilli bearko yoat aurtengo neguan.
Gazte nintzanean, denpora batean,
Ez nintzan sosegatzen ezkondu artean.
Ezkondu eta gero illabete bage,
Porrusaldea neban oriorik bage.
Porrusaldatxo likin, orio bagea,
Ez nintzan ni gaztetan olako zalea.

EZ DEZU MAITE

Agur, neskañil eder polila, usaidun lore txuria;
Entzun gaur nere biotzeko itzak, usotxo maitagarria.
Nai zaitut eta, zugandik gauza bat jakin gabe ezin **gelditu**:
Ez dezue maite Euskalerrria?... Nere biotzak samin du.

Ez dezue maite ?\| jaio ziñan etxeko gela samuna,
Eta txikitán an egon ziuán sukalde bero ederra?
Ez dezue maite ama zarraren muxu ta laztan béroa,
Eta amonatzok abesten zuen seaska-abesti gozoa?

Ez dezue maite tuniun-txistuen eres-ots zoli ta ariña,
Eta antziñeko euskoen dantza, dantza garbi ta liraña?
Ez dezue maite dantza alai ortan dantzatzen duen mutilla,
Mutil sendo ta biguna, sasoi oneko gazte bikaña?

Ez dezue roaite euskotar danen pillota-joku **bizia**.
Mundu guziak goratzen duen esku-joku maitatia?
Ez dezue maite aizkora-joku polit eder eta azkarra,
Eta palanka botatzen duen gizon indartsu bizkorra?

Ez dezue maite mendiko-goian dagon basetxe zuria,
Zu bezelako uso askoren kabitxo zoragarria?
Ez dezue maile Euskalerrriko itxaso zabal aundia,
Ta andik arraia ekartzen duen arrantzale on argia?

Ez dezue maite zure amatxok erakutsitako izkera,
Seme zindoak, euskaldun onak, maitatzeu deguu euskera?
Ez dezue maite gure asabak aldatu zuten zuaiza,
Apain, egoki. anitz ederki, Gernika'n dagon arritza?

Arren, maitelxu: Esan zadazu maite dezula Ama zarra;
Oztu ez dedin nere barman zuretzat dutan sugarra,
Esan zadazu nai dezula izan egizko eusko-alaba;
Eta orduan joango naiz ni maitasun onez zugana.

Esan zadazu biotzez maite nai dezula gure erria;
Orduan egiz izango zera nere izar alaigarria.
Esan zadazu orain, nerekin: «Maite det euskalduna».
Egi-egitan izango zera betiko nere laguna.

Satarika

GERNIKA'KO ARBOLA

Gernika'ko arbola da bedeinkatua,
Euskaldunen artian guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu munduan frutua ;
Adoratzen zaitugu, arbola santua.

Milla urte inguru da esaten dutela,
Jainkoak jarri zuela Gernika'ko arbola.
Zaude, bada, zutikan orain ta denbora,
Eroritzen ba'zera erras galdu gera.

Etzera eroriko, arbola maitea,
Baldin portatzen ba'da Bizkai'ko Juntea
Laurok artuko degu zurekin partea,
Pakean bizi dedin euskaldun jentea.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko
Jarri gaitezen danok laster belauniko ;
Eta biotzetikan eskatu ezkeru,
Arbola biziko da orain eta gero.

Arbola botatzea dutela pentsatu,
Euskal-Erri guztian denak ba-dakigu.
Ea, bada, jendea, denbora orain degu;
Erori gabetanik iduki biagu.

Beti egongo zera uda-berrikua,
Lore aintziñetako mantxa gabekua.
Erruki zaitez, bada, biotz gurekua,
Denbora galdu gabe emanik frutua.

Arbolak erantzun du kontuz biritzeko,
Eta biotzetikan Jaunari eskatzeko.
Gerrarik nai ez degu, pakea betiko,
Gure Lege zuzenak emen maitatzeko.

Erregutu diogun Jaungoiko Jaunari
Pakea emateko orain eta beti:
Bai eta indarra ere zedorren lurrari,
Eta benedia Euskal-Erriari.

iparragirre

GURE EUSKERA

JVere barrengo estuasun bat
kantuz bear det zabaldu,
Euskal-Erriko anai maitiak
nai ba-nazute lagundu.
Oinbeste urtian dagon izkuntza
orain ari digute galdu...
Gure Jainkuak orrelakorik,
arren, utziko ez al du !
Naiz aberatsa, naiz beartsuak,
zar, gazte, aundi, txikiak,
jakitun egin nai nituzke gaur
euskalerfitar guziak;
danon biotza ikui ditzala
Jaungoikuaren graziak,
ikas dezagun zer lege diran
gurago zarrak utziak.
Lur-zabal onen asierako
emakume ta gizonak,
Euskeran eta Nekazaritzan
il arte jardun ziranak...
Gure guraso Aitor ta A'mal'en
ogibide au izanak...

Biok dira gaur geien-geiena
zokoratutzen diranak.
Jakiña dago izketa-era au
eztala sortui-berria ;
irurogei ta amar etxalde
ziran garaian jarrja ;
Babilonia'n izandu zuten
naspilla izugarria ;
ordukua da guk orain degun
Euskera maitagarria.
Euskerak zenbat urte dituen
oso jakintsu ez nago ;
beñik-bein Jesus baiño berrogei
ta amar gizaldiz lenago...
Aitor izena zuen aitona
aztua ez da egongo...
Galdu baiño len gozo pixka bat
ez al diogu emango?
Sei milla urte inguratuak
entzun izan det dirala,
irurogei ta amar izkuntza
munduan jarri zirala ;
—ordukua da gure Euskera—
ta arlian iñor etzala;
Aitor etxalde guztiarekin
onera etorri zala.
Euskaldunáren iturburua
Tubal'en seme Aitor zan:
aren ezpañetan gure Euskera
orain ez bezain jator zan;

gure aitonen txiki denboran
ere alax_e omen zan ;
bai ta gaur ere erbegtetikan
jendia nastu ezpa-zan.
Iturri ontan len ur ona zan,
orain nastua ta otza;
gure artian bein egin zuen
lurmentzen ez dan izotza ;
birau zikiñik nai eta ere
ezin esan dan izkuntza...
au galdutziak erdibitzen du
euskaldunaren biotza.
Erdalckerian berotu gera
siñismenian ozturik,
gabiltzalako erbestetikan
jendiarekin nasturik;
ba-dirudigu bizi gerala
nor ta zer geran azturik...
Lotsagabe ta izkuntza txarra,
ortik ez dator besterik.
Ai, euskaldunak! Ez ote gera
noizpait zintzotzen asiko?
Bide ortatik zer datorkigun
laister degu ikusiko ;
Euskerarekin Euskal-Errian
ez gaitu iñork autsiko:
Euskera gabe berealaxe
etsaia zaigu nausiko.
Eztago urrerik, ezta zillarrik
mundu onetan dagonik,
norbere etxian jaun eta nausi

izatia aiña danik.
Gu galdu naiez dabiltz etsaiak
uts egin gabe egunik...
Baiñan gutarrik izango ote da
morroi bizi nai duenik?
Bedeinkatua izan dedilla,
Euskera, zure itzala !
Zuk erakutsi ziñidan neri
munduan iñor nitzala.
Zeruko Jaunak milla urtían
gurekin gorde zaitzala !
Zu iltzekotan, erri ta mendi,
urak irunsi gaitzala.

Juan Kruz Zapirain

AMA EUSKERIARI AZKEN-AGURRAK

Neure biotzeko Amatxo zarra,
Antxiñako ama Euskera,
Seme leial bat orain datortzu
Azken-agurra emotera ;
Ainbeste gerra goitu ezinda,
Danori atsotu zara;
Zaurien zauriz galdu-galduta,
Amatxo, zuaz iltera.
Zori gaiztoan negargarri ta
Dot sentimentu andia,
Geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jarria;
Bestela erdu, erdu ikustera,

Tubal euskeralaria ;
Baña, ez dozu ezagutuko
Orain zure jatorria.
Nun dira, bada, zure semiak
Foru ta euskera zaliak?
Nun dira bada, Tubal, gure aita,
Zure ondorengo garbiak?
Nun dira, bada, zure ume zintzo
eta leialen legiak?
Nun dira orain, orain negarrak,
Nun dira nire begiak?
Agur illun bat egin deuskue
Guraso zarren legiak.
Umezurtz batzuk gelditu gara
Billosik foru bagiak;
Izan ba'giña eurak legetxe
Euskeriaren zaliak,
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragarriak.
Errazoiagaz esango dabe
Gure urrengo umiak,
Izan giñala duda bagarik
Ero ta zoro garbiak;
Jakingo dabez euskeriagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera-zale giñalako egin
Galdu zirala guztiak.
Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendiak,
Orain artian zuek zare izan

Foruen gordelariak;
 Zuek goietan beti euskeldun,
 Ez alan beian erriak:
 Orra zer gero ekarri deuskun
 Azkenian erderiak.
 Beietan iya ez dot ikusten
 Tubal'en ume zintzorik,
 Ez dalako gaur emen entzuten
 Erderaz baiño besterik;
 Onexek dauka 'nire biotza
 Naigabez erdibiturik,
 Ez dodalako gure euskera
 Osatuko dan usterik.
 Euskeriari gorroto eta
 Gozau nai bere foruak,
 Dirala uste dot barru-barrutik
 Aterestia zoruak;
 Izan leiteke ori alan baiña,
 Niri ezetz diñost goguak:
 Baldin euskera biztzen ezpada,
 Iltzat daukadaz foruak.
 Geure erruz, bada, ekarri dogu
 Eriotzako unera,
 Berbeta eder gozo ta leun au
 Beste munduko atera;
 Norbait ezpada laster minduten
 Osasuna emotera,
 Mundutik laster juan bear dau
 Ama Euskerak bestera.

Ainbeste seme emon zituzan
 Itxasorako zoliak,
 Liorrerako ez gitxiago
 Gerrari bildurgarriak;
 Liburuetan ta izkuntzetan
 Ugari miragarriak;
 II ziran danak, eta orain il biar
 Euskera maitagarriak.
 Or Gernika'ko arboliaren
 Oiñian dago etziñik,
 Estu ta larri iya illian
 Arnasaz bete eziñik;
 Au ikusita, ez ete~ deuta
 Iñok artuko errukirik?
 Ez ete datoz bere semiak
 Osagarriak arturik?
 Ai! neure Ama, gaurko semiak
 Deritxat dagoz aztuta,
 Estura onetan lagundutera
 Iñor ez da agertuta ;
 II zaite bada, bakar ta soillik,
 Paradisuko izketa,
 Sei niilla urtian ainbeste damu
 Garratz mingotz iruntsita.
 Zer al daiketzut, Ama, bakarrik
 Agonia estu orretan?
 Zotin, zizpuru, negarrez urtu
 Etziñik zure oiñetan;
 Parka eskatu seme danentzat
 Biotzez bene-benetan,

Zure arimia lagun ipinten
Jainkoafen eskuetan.
Zuaz mundutik orban bagarik,
Zuaz mundutik garbia,
Zuaz mundutik adorau baga
Ez idi eta ez beia ;
Beti gorrotau, beti zapaldu
Zenduan idolatria;
Ta orain zagoz Jaunari emoten
Fedian zintzo bizia.
II da Euskera / II da Euskera !
Betiko itxi dauz begiak!
Negar Arabak ! negar Gipuzkoak !
Negar egin bai Bizkaiak!
Negar, arkaitzak ! negar mendiak !
Agortu arte iturriak
Ainbeste geiso, ainbeste gatxen
Osasun emongarriak.
Negar Naparrak, geure anaiak,
Ta euskaldun Frantziakuak!
Neugaz batera danok urratu
Sentimentuz soiñekuak;
Aztu istoria edo kondairak
Emengo ántxiñákuak,
Ta euren lekuan asi barriak
Aurrera erderazkuak.
Eta, nun dozuz, zeruko arbola,
Zuk bere jantzi berdiak?
Zure arramok billos dakustaz
Igar ta ezkur bagiak.

Ai mingarria ! Gaztelako arrak
Jan deutsuz sustrai guztiak,
Baita biotza, baita barruak,
Azala itxita bestiak.
Zagoze oraindik zutik, arkaitzak?
Dollortu baga, mendiak?
Samur emoten Somorrostro'gaz olak,
Zeuen ondasuntegiak?
Errotak klan klan, taun-taunka
Eta pil-pil iturriak?
Biziरो errekak baita itxasuak
Opaka arraintza ugariak?
Geiegi da ta ausi, arkaitzak,
Onegi ez izan, mendiak,
Lurpetuteko Euskera illa ta
Bere ondasun biziak.
Bera, tontorrek, bete arruak;
Erdue, Gaztel-lau igarrak;
Agortu, érrkek; lurtu, itxasuak;
Agur, euskeldun ibarrak.
Geure Erria, gizaldi danak
Zugaz dira gomutauko,
Ez dabelako beste erri bat
Zu duin garbi aurkituko ;
Etsai batzuek alper-alperrik
Zure izena zikinduko,
Zeure Jaungoiko egi bakarrak
Dau oso garbi gordeko.

Arrese-Beitia

Makurturikan aretx maitia
lurra jo arte, orriak
lokatza artean nastuak ditu,
ez baitu eraman aiziak.

Laiñoz betea zerua dago,
ezin da ikusi argia;
illuntasunak beti-betiko
ostu al digute eguzkia?

Itxasotikan ez da agiri
dizdiratutzen izarra...
Euskal-errien begietara
gaur agertu da negarra.

Báíña egun bat etorriko da
argitasunez betia;
orduán danok jakingo dabe
zer dan Euskaldun erria.

Jakingo dabe ez dala izoztu
odola euskaldun zañetan,
biotza ez dala bein be ikaratu
egun arrigarrietan.

Aretx ederra loraturikan
laiñoetara igoko da,
Euskal-Erria zoraturikan
bakean arkituko da.

Aize gozoak aretx orrian
durundu leun-leunagaz
kantatuko du uda goizian:

«Piztu gerade aretxagaz!»
Itxasoetan olatu andiak,
bere betiko ibilleran,
zeruraño urak jasoko ditu,
zutik aretxa ikustean.

A, laiño beltzak... illuntasunak!
Etorriko da argia!...
Orduán danok jakingo dabe
zer dan Euskaldun erria.

/ . K. Gerra

AITONA GIZAGAIXOA

Udaberriko usai gozozko — iflunabartxo batian,
Donostia'tik urruti gabe, — uri ontako partian,
Baserritikan onontz datorren — bidetxigor politian,
Sagar ta gaztain. aritz, elorri, — urritz ta lore tartian;
Azpi-aldian errekatxua — marmariaz ostopian,
Eguzkiaren azken-dizdizak — aruntzko mendi tentian,
Kuku ta beste txorien kantak — baso guztiak betian;
Kabi batian lau txorikume — txillar tarteko otian.
Gauz abei denai begiratuaz — emen, gure lur maitian,
«Iiion ez dago oneiakorik» — esanaz nere artian,
Netorren. eta alako batez, — jiratxu bat ematian,
Aionatxo bat arkitu nuen — eserleku arlotian,
Berekin zeukan penaren kargak — lurrera iya botian.
Garai ta leku pozgarri arlan — gizon ura ikustian,
Alaitasunez ing-uratuá — ain egoera tristian,
Bereganatu nintzaion zerbait — itz-egiteko ustian.
Iruditzen zait gaur oraindikan — bera ikusten naguela,
Arri-tontortxo baten gañian — exerita daguela;
Belaun nekatu bien taTtean — urritz-makil bat duela,
Beraren puntan ipiñirik len — buruan zuen txapela,
Bi eskuakin gogor elduaz, — kontu egiñaz onela,
Eta kokotza oien gañean — lotan ba'lego bezela.

TMola jostatzen pil-pil zebillen — ego-aizetxo epela,
 Buruko ille txuri bakanak — egara zijoazela
 Esan zeikian, uste det berak — nabaitutzen etzuela.
 Antxen nenguan, bere onduan, — zer egin ez nekiela,
 Laguntzarik nai zuen galdetu, — edo aldegin bestela.
 Itz-egin zuen, ela kezkatik — atera nintzan berela.
 Asnas lodi bat irten zitzaion, petxu estutik jasua,
 Ta lenbiziko au esan zuen: —•• —«Nere Euskera gaxua!»
 Esan onetan ezaguturik — aitonak zedukan miña,
 Erantzun nion: —«Jauna, Euskera — ez dago ain aldegiña;
 Oraindik ere lur maite ontan •— ba-da zeñek itz-egiña».
 Baiñan nere itz motxak etziran — bera lasaitzeko diña,
 Ta zion: —«Ondo ikusitzen det — datorkigun erasua;
 Ez da biziko, laster ilko da — gure Euskera gaxua».
 —«Jauna, ez bedi orla tristetu, — ez dago Euskera juna;
 Ez du nabaitzen inguru ontan — daguen alaitasuna?
 Ez du ikusten ez dala gaitza, — baizik dena osasuna?
 Euskal-Erriko txorien kantak — dago pozez entzuna?»
 —«Bai, len bezela saiatzen dira — kukua eta zoxua;
 Oiek or daude| baiñan galdu da — gure Euskera gaxua».
 —«Jauna, barkatu bizait, berriro — gogor egiten ba'diot,
 Euskera orain baiño txarrago — egon dala derizkiot;
 JEz du ikusten nola izkuntza — ontan ari geran biok?
 Gaur Douostia'n ez dakienik — ez du aitortu nai iñork».
 —«Baiñan erderak betiak dauzka — erria eta basua;
 Alperrik zabiltz, galdua dago — gure Euskera gaxua».
 —«Jauna, alaitzen asi gintezke — Euskera maite degunak;
 Ba-datoz, ustez iya betiko — galduak zeuden egunak;
 Len aintzakotzat artzen etzuten — damatxo txapela-dunak
 <5aur erantzuteu dute biotzez: — «Gu gerade euskaldunak».
 —«Baiñan ainbestek jartzen diote — traba édo arazua...
 Nola nai dezu indartutzia — gure Euskera gaxua!»
 —«Jauna, ba-daki nola lenago — ez genekien erderik,
 Eta guraso leial on askok — umiak argitu nairik,
 Aldi batean, non ikusi da — izkuntz au gabeko mairik?
 Orrengatikan dago Euskera — lotsaz txokuan gorderik».
 —«Bukatu bedi oitura orren — epea edo plazua;
 Izan zazute maitexiago — gure Euskera gaxua».
 —«Jauna, ez beza negarrik egin; — esan diotan bezela,

Ikusitzen du lenago baiño — askoz obeto gaudela:
 Luza lezake, txit zailla da-ta, — oso indarlzen berela».*
 Ontau malkuak kolpez kendurik, — erantzun zidan onela:
 —«Nik erderarik ez dakit, eta, — nere illobak... au sua!
 Ni bezelaxe burlatzen dute — gure Euskera gaxua».
 Au mintzatzian arkitu zuen — nonbait ain estu barrena,
 Non altxarikan eserlekutik — al zezaken azkarrena,
 Esan zidan: —«Ai, denak nai dute — lege zarrak dakarrena,
 Eta ez dute ezagututzen — izkuntz dala aurrena.
 Miru gaiztoak menderatutzen — duten bezela uxua,
 Etzazutela iltzera utzi — gure Euskera gaxua».
 Eskuarekin agur egiñaz, — arturik makillatxua,
 Etxe aldera abiatu zan — ain euskaldun doatsua.
 Geldi-geldika jarraitu nion — neurtuaz bere pausua,
 Illobetara biurtu zedin — aitona gizagaixua.

Pello Mari Otaño

BETIKO AGUR

Betiko agur egiten natorkin, ene maite;
 Itunak neure biotz au oiñazez yon lertuten:
 Laster, oi! neugaz aiztuta, beste bat doken maite*

Zegaitik egiten daustak betiko agur neuri?
 Uste dok ene biotzan ez dala maitasunik?
 Maite bat bakarrik yuat: maite oi az erori.

MENDIAN EDER

Mendian zoin den eder eper zango gorri!
 Ez da bear fidatu itxur'eder ori.
 Ene maitiak ere bertzeak iduri:
 niri hitzeman eta gibelaz itzuli.

Gaztena, ontu-eta, lurrean ihaurrei:
*ne biotza duzu zugarat erori,
eta zurea aldiz harria iduri:
ene begi gaixoak nigarrez iturri.

Airea zahar eta kantorea berri:
ene maite pollita, zira xarmagarri:
kolore xuri-gorri, arrosa iduri,
mundurat jina zira ene ihargarri.

Heldu naiz zure-ganat, arrosa edepa,
ezin-bartze huntarik nezazun atera,
Xangrin huntan hiltzeko jin balait malurra,
begian ba-zinuke betiko negarra.

GAUZA SAMINGARRIA

Munduko bizi-moduz gogoratutzian, negarra irtetzen zait Liegien ertzean: jaiotzak eriotza daduda aldian, «gun triste batzuek dauzkagu tartian, alare ezin konpondu gerade pakian. Danak ebarastuta nai genduke bizi, osasanari kontu, diruari utzi; orrek eztu esan nai	mundu ontan gutxi. Txarrá etortzen zaigu, naiz ona berexi: ditxa guztiak ezin litezke iritxi. Au da nik mundu ontan ekusten detana: guztiak naitasuna diruarengana ; orrek amaten digu emen naiko lana; alkar ezin ikusi, au da okerrena, pake gozuan bizi bear gendukena.
---	--

Bista ona izanda ezin-ikusia, ori arrapatzen det gauza itsusia ; batek esan lezake	ez dala egia: anaitasuna degu bazterrera utzia, non bizi geran ere aztu zaigu ia.
--	---

Pello Zabaleta

GOIZEAN GOIZ

Goizean goiz jeikirik, argia gabarik,
urera joan ninduzun, pegarra arturik.

Jaun txapeldun gazte bat jin zautan ondotik,
eia nahi nuenez urera lagunik.

Nik: ez nuela nahi urera lagunik,
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz erran gatik,
pegarra joan zerautan, besotik arturik.

Urera ginenian, ez ginen egartsu.
Galdegin zautan ere: «Zenbat urte tutzu?»

—«Amasei... amazpi orain-ez konplitu:
zurekin ezkontzeko gazteegi nuzu.»

Ettxerat itzultzeko nik dutan beldurra!
Ez jakin nola pentsa amari gezurra.

—«Neska, nahi duzuia nik erakuts zuri,
ettxerat etortzean zer erran amari?»

«Urzo xuri pollit bat, gabaz debilana,
hark ura zikindurik, egotu naiz, ama.»

—«Dakigunaz geroztik zer erran amari,
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti.»

BEGI EDERRAK

Zure begi ederrak
ene Iaztana !
katigaturik nabe,
librea nintzana.
(1615)

EGIA ETE?...

1
Gorantza dagist
zerbaitek barnean,
izar urdiñak
Besarka naiean.
Gorantza dagist
urduri ta indarrez...
Biotzak, baiña,
egorik sortzen ez...
Eguzki-izpitan
abillan arrano,
ar nagik, arren
izarretaraiño.

2
Urruntza dagist
zerbaitek barnean,
maite-liliak
besarka naiean.

Sortzen liliok
itxasoz urrundik...
Biotzak, baiña,
ez dauko arraunik.
Itxas urdiñez
abillan ontziño,
ar nagik, arren
lilietaraiño.

3
Gorantza dagist
zerbaitek barnean..
Baiña arranorik
ez dakust ortzean.
Urruntza dagist
zerbaitek barnean..
Baiña ontzirik
ez da ager urrean.
Goiko Jaun ona,
egia ete da

izar urdiñak natzakela goian,
nozbaiten gainduta, zure kolkoko
maite-mozkorrez lili-baratzean?

Artadi

AMALAU KOSKABILLO

Amalau koskabillo
lau kana zintekin,
ederki dantzatzen da
gustokoarekin.

Begiak beltxak, gorputz liraña,
kolore arrosarena;
maite polita, ba-dijoakit
nere biotza zugana.

Oiñak dituzu txiki politak,
gustagarriak txit dira ;
gerrian, berritz, eman litezke
kana bat zintaz bi jira.

Ille beltz ditzizaria
zendukan zuk buruan;
zu baiño aingeru edertragorik
ezta sortuko zeruan.

Adios, orain, banhoa eta;
nai dezunean etorri,
amoriozko begi ederrak
erakustera alkarri.

SANTA AGEDA ABESTIAK

1

Zorion, etxe ontako danoi.
oles egitera gatoz:
aterik ate oitura zarra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oiñetakoz:
baiña eztarriz sano gabilta,
ta kanta nai degu gogoz.

2

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua d^guna.
Santa maitea gaur artu degu
gure bideko laguna ;
aren laguntzaz bete gentzake
egun ontako jarduna.

3

Sizilia'ko ugarte ederrak
emana degu lorea:
an jaio bai-zan gure Ageda,
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz artu zun
Jesukristo'ren legea ;
maitasun onek ekarri zion
biotzeko poz betea.

4

Edertasunez Jaunak apaindu
zuan Ageda gaztetan:
aren begiak izar bi ziran,
arpegi gozo aretan.
Gizon gaiztoen griña zitalak
esna zitzaken benetan ;
laster itxutu zan Kintziano
Ageda'ren ederretan,

5

Ageda'k bere maite bakarra
Jesus aukeratu zuan:
orregatikan beste maiterik,
etzan arentzat munduan.
Kintziano'ren eske guztiak
errez baztatu zituan ;
baiña agintari gaizto arek
kristautzat salatti zuan.

6

Emakume gaizto baten mende,
sartu zuten giltzapean,
Ageda'ren biotz garbi ura
zikin ote zezakean.
Alperrik baiña alegindu Zan
andra lizuna lanean:
onen esanak etziran sartu
Ageda'ren biotzean.

7

Amorro biziz oiñutsik jarri
dute Ageda zintzoa,
txingar gorien gaiñean gero
ibil-arazi gaixoa ;
ondoren bular bat ebakita,
uzten dute urratua ;
baiña Jainkoak biurtu zion
gau artan bular miñdua.

8

Alperrik gizon gaiztoak zuten
oiñazez erdi-illik utzi:
Jesukristo'ren maitasun artan
etzuan iñola etsi.
Otoi gozotan gogoa ixuriz
mundu ontatik igesi,
zeruetako zori ederra
betiko zun irabazi.

XAGUXARRA

Lau oñekoen kaltez, aspaldi batean,
txori ta egaztiak gudan ari ziran.
Garaille, batzuetan, ziran egaztiak;
ta beste batzuetan, berriz, abereak.
Xaguxarra, egazti artean, egazti,
ta abere artean ei zan xagu beldurti.
Azkenik, alderdiok aizkide egin ziran
orduan xaguxarra ixtillu larritan...

Aren gezur maltzurak guztiek zekiten,
ta iguñez bi alderdik ezetsi oi zuten.
Arrezkero omen dabil argitik igeska,
ta gau illun beltzean bakarrik egazka.
Ezpa-duzu gura izan bizkera makurra,
iñoiz ere ez zaite izan gezurti maltzurra.

Udalaizpe

MENDI-GAÑA

Maite ditut gallurrak,	sortzen duk zorunaren
argiak ez beste...	lore ez-ezaguna?...
Ai, egaztia ba'nintz,	Nik amestean bezela
gañik-gain nenbilke !	ote aiz, mendi-gaña?
Oi, udaberri-goizez	Goi-jauregiko malla?
mendiaren gallurra !...	Gotzonen urbilgo?...
Oi, aren ametsezko	Egiz, Jaungoikoaren
zorakortasuna !...	esku ta aunditasunsi
Zein ezkutuzko indarrez,	ote dituk or goitik
zein atsedeen-egarriz,	sumatzen bertago?...
zein gorago-egarriz,	Ire goi urdiñaren
narakark igana?...	urre lañotsupean
Egiz, maitagarriak	beeko txikerkerion
dituk ire basotan?...	azkaia ba'legok,
Egiz, duk arnaskai bat	arren, aiskide urruna,
ezilkortzen duna?...	otoi, mendi maitea,
Egiz, eguzkiaren	negar-aran beltz oni
leendabiziko muñaz	kendu nazakiok !

Maite ditut gallurrak, Ai, egáztia ba'nintz,
argiak ez beste... gañik-gain nenbilke!

Lizardi

ARADERA

Urkiola aizetsuan, ez egidak oinpean
epel naiz ozkirri, loitu lora maite.
artzain abillen gazte, Lo-kuluxka ba-dagik
esan eidak garbi: bazkari ostein,
Anboto'ri bizkarka, or daukak esku zuri
Larrano baiño len, ire jagonean;
Asuntza'n, bedar mia ta urrin ba'dok iñoizka
ardiak ez dabén. ames-eio-arri,
Giñarre, azki, ote, ur yagok zelai-lore
ba-dok or ugari, biotz-alaigarxi.
zenbat-nai asetzeko Bildotsak jan ezkero
ardi, bildots ta aari. aren osto-azi,
Ba-dira liliak be, ordekan dari gabaz
urre ta minbera ; arnas-usain ezti.
danetan maitekorren Ta iri, etxeratzean,
nok ez aradera? (1) andreak itauna:
Naizi-ta ardiak marraztu —«Nundikoa dok, maite,
ta ik oinpean zupal, dakarran usaiña?»
larre-lora tisaintsua Gotzon-egoz abil ba,
beti eder apal. ene artzain mazal;
Gotzon-egoz abíl ba, ez egidak oinpean
ene artzain gazte ; aradera zupal.

Otarri

(1) Mendi-toncorretan azten dan bedar-lore usaintsua,

AGUR, JAUNAK!

Agur, jaunak! zuek eta gu ere bai.
iaunak, agur! Agur, jaunak!
agur ta erdi! jaunak, agur!
Jainkoak denok emen gire !
egiñak gire,

EUSKERÁ GORDETZEKO ARRAZOI TA BIDIAK

Jaungoikoaren aldetik
ditugun doaietatik,
zuzena bestetatik
alde guztietatik,
izkuntza zuna atera
lendabiziko Euskera.
Aberreetatik desberdin
izkera arkitu dedin,
bakarra zuan egin.
Gaur-re ala zan baldin,
ez gaixtotzera jendia,
ala egin zan ordia.
Bakarra izan genduan
asieratik munduan,
eta iragun zuan
—dagonez liburuan—
milla zortziregun urte,
dorre bat asi bitarte.
Babel omen zan izenez
dorria arek zuenez,

ualdin beldurrez
—irakurri degunez—
nai zan ori egitia
gizon gaixtuen artia.

Kastigua andik sarri
Jaungoikuak zien jarri;
ainbat izkuntza berri
nola gogor ein arri:
gelditu ziran bezela
zer egin etzekitela.

Guziak izkuntza bana
oso desberdiña dana :
aitu izan dedana,
itxura-re daukana,
an sortu zala Euskera,
danetan zarrena bera.

Bi iritzitan járria
dagon izkuntza garbia,
lurpera ezten abia,
arrazoi bat aundia
dadukatenak gu gera
gordetzezkero Euskera.

Ba-gaude asko euskaldu
ama ikasige nor dun,
txikiak ziran ordun
etzaielako jardun
erakutsitzera jator:
okerra ortikan dator.
Kalian ta mendietan,

etxe ta pamelietan,
naiz aundi-txikietan
denpora guztietan,
beti Euskera itz-egin,
txutik zuzen jarri dedin.

Alkartegi naiz batzoki
ta beste asko biltoki,
daudenak ezte gaizki;
baiña ez dira aski:
geigo biar dira jarri,
gogoz lagunduz alkarri.

Guraso jatorrak etzi,
seme ta alabak jantzi,
Euskera erakutsi,
ez zabarkeriz utzi,
orain artian bezela,
akabo gera bestela.

Ama Euskera guriak
dituen ítz primoriak,
guk beraren semiak
mantentzeko bidiak
nola dauzkagun aundiak,
saia geitezen guztiak.

A. Berridi

ATSO GEZURTI BATI

Txirrita il dala kontatu omen du
Errenteria'n atsuak,

susto galanta artuko zuen
senide ta gurasuak;
aien negarra, nere koñata
eta illoba gaxuak!
Bizi naizela jakin dezaten
jartzera nua bertsuak.

Izeba zar ba-da Panplona'n,
gure etxian azia ;
aretxek eman ta artua naiz ni
Bataiuaren grazia;
argana ere allegatu da
il naizela notizia,
ta gaxo ura an omen dabil
guzia lutoz jantzia.

Panplona'n dedan izeba xarra
zenbatxu maite dedan nik,
iñola ere ez derizkiot
juzgatuko nukianik;
mandatari bat bialdu nuen
abisatzera emendik,
lutu tristiak bota ditzala,
bizi naizela oraindik.

Zeruan dauden santu ta santak
daude triste ta serio,
len esan dedan gezurretako
atsua dala merio ;
baldin Jainkuak salbaziorík
orri ematen ba'dio,
umildade ta errezatziak
askorik eztu balio.

Atso gaixtuak azkar egin du
bi alabaren tratua;
beste bat laster salduko luke
ba'leuka zeñnek artua.
Inozentiak galtzen dabillen
gaixto desordenatua !
modu orretan segitzen ba'du,
lastér da kondenatua.

Bat itxua zan, miserabilia,
saldu zuna lendabizi;
kuarto batian preso jarrita,
atia zioten itxi:
ezer etzuen ikusten eta
nora juango zan igesi?
Ai, zer gustua eman zioten
Luzifer eta Judas'!

Txirrita

MAATS-ORPOA

Matsaren orpotik dator
mama gozoa,mama gozoa !
Edango neukela
beterik basoa:
Klink!
beterik basoa...
Nik zuri,
zuk niri,
agur egiñaz alkarri!
basua txit garbi,

bearko da ipiñi!
Nik ziri,
zuk ziri,
biok alkarraz bost irri:
gaur ez yat komeriii
negarrik neroni!

ZORIONKETARIA

Lehen lilian nuen bizia,
erritik joan nintzanean;
Gazte-lagunen dantza pollitak
utzi nituen etxean...
Bai ondorea, bai ontasunak,
denak utzirik joaitean,
Alegeraki, giza-gaixoa,
esperantza biotzean,
Zoriorn-keta abiatu niz
bide-makila eskuan.
Ustekeria berezi batek
ba-ninderaman beilari:
Mixteriozko dei batek behin
itz hauk zauzkitan ekarri:
—«Abil, maitea, Iguzki-alde,
jarraik adi bideari.
Urhezko ate baterat-ej;a,
sar adi, el bezain sarri...
Or lurra zeru bilakatzen duk...
Adio zorigaitzari!»
Arratsa eldu, goiza ere jfn,

sekulan ez niz gelditu...
Uhaitzez autsi dautet bidea,
mendiak zaizkit etsaitu:
Leize beltzenak, ur andienak
nolazpeit ditut garaitu;
Ildako bero, neguko hotzak,
denak ixilik pairatu...
Baiñan nik nahi nukeien hura
beti bixtatik zait galdu.

Ibai eder bat aurkitu nuen
Eki-alderat zoana.
Artan fidatu, ori nuela
el-biderik oberena:
—«Otoi, urhezko ate artarat
ereman nezak, uhaina!»
Uhain urdiña, jausian jaúzi,
ba-doa beti aitzina...
Orai itsaso zabal erdian
nago arek eremana.
Eskuin bezala ezker so nago,
bi begiak xuriturik;
Ez dut ikusten muga hartarat
ninderamaken biderik.
Astean bezain gibel niz eta
deus ez dezaket igurik.
Zerua naski goraxko dugu,
nehun ez unkitzen lurrik...
Lur untan nehoiz ez, da sortuko
ango zorion osorik.

P. lthuTTalde

ARRANBILLOTE

1

Arranbillote, arranbillote,
Erroka'ri semia eman diote;
Atia 30 ta leiora,
Erroka'nan semia jaio da.

2

Atzo, atzo, atzo,
Atzo il ziran amar atso.
Txakoliña merkatzen ezpa-da
Ilgo dira beste asko.
Atzo, atzo, atzo,
Atzo il ziran amar atso.
Etzi, etzi, etzi,
Etzi ilgo dira emeretzi.

BAUTISTA BAZTERRETXE

Bautista Bazterretxe,
mutiko pijua,
neri gurdi-ardatza (biz)
ostuta dijua.
Beltxak eta txuriak
izango dituzu,
neri gurdi-ardatza (biz)
emate ez baidazu.
—Gurdi-ardatza ezik
itai ta aria,

besteren bear gabe (biz)
ba-daukat neria.
Sega, poto, labaiña,
gañera bostortza
perian erosia (biz)
daukat nik zorrotza.
Nere idi pariak
dauzka zintzarriak,
Lepotikan zintzillik (biz)
zildaian jarriak.
Gañera uztarriak
ta kapetakoak,
ontz-urre gorri-zarrez (biz)
erositakoak.
—Zeronek naiko gauza
dezula diozu,
baiñan gurdi-ardatza (biz)
lapurtu didazu,
Ordaindu bear dezu
larrutik ederki,
ardatza ez baidazu (biz)
neri ekartzen aurki.
—Buru gogorak bai-du
berekin kaltea:
ez dedan gauza nola (biz)
nai dezu ematea?
Zentzuak galdurikan
arkitzen zerade,
bestela beintzat orla (biz)
ariko ez ziñake.

—Gezur ta abar zabilta,
Bautista, tranpian,
zu bezin gezurtirik (biz)
ez da Euskal-errian.
Zure berri dakite
inguruko denak:
gordetzen dituzula (biz)
gauza besterenak.

AMODIO-MINA

Lagunak ari zaizkit konseilu emaiten
Zendako ez zaitudan biotzetik uzten:
Amodioa utz baiño aisago da hartzen:
Frogatu ez duenak ez du konprenitzen;
Buruan sartuz geroz ez dela jelgitzen.
Mundu au egiña da jende mota oroz:
Batzu aberats eta bertzeak maluros;
Ainitz ezkontzen dira adineraz geroz,
Biotza bete gabe amodio beroz;
Gero maitatzekotan esposik ez eros!
Ezpiritu duenak ba-daki engoitik
Penak eldu direla plazeren ondotik;
Berak ez balinbadu maite biotzetik;
Ori deklaritzen dut ororen gainetik:
Esposikan ez eros intresaren gatik.

AMODIOAREN PENA

Amodioaren pena, oi! pena andia!
Orain ezagutzen det zer dan aren pena;
Amodioa ez ba'litz dan bezain krudela,
Ez nezakezu esan maite zaitudala.
Munduan zenbat urrats, oi! dedan egiten!
Ez aal dira oro alperrak izanen;
Jendek esanagatik guretako ele,
Maitia, trufa nainte zu ba'zintut neure.
Zeruan zenbat izar, maitia, aal da?
Zure parerik ene begietan ez da;
Neke da partitzia, maitia, enetzat;
Adio esaten dautzut denbora batentzat.
Nik esanagatikan, maitia, adio,
Ez nezazula ukan zuk, otoi, astio,
Baiña bai biotzetik izan amodio:
Etzaitut kitaturen tunban sar artio.
Nik ba-det maiteño bat, oi! hura nolako!
Ez da tipi, ez andi, bai bien arteko;
Bergia du ederra, oro amodio;
Biotzian sartu zaut, ez baitzaut jelgiko.

ORRA OR GOIKO

Orra or goiko ariztitxu baten
Kukuak umeak egin yozak aurten.
Kukuak egin, amilotxak jan:
Axe bere kukuaren zoritxarra zan.

Amilotx orri kukuak dirautso:
—«Eztauat itxiko gaur azur bat oso».
Ume-jaleak erantzumentzat,
Diño: —«Ire ardurarik etxaukat».

XORI KANTAZALE EIJERRA

Xori kantazale eijerra, non ote hiz kantatzen?
Aspaldian nik eztiat hire botzik entzuten;
Ez oreik, ez arterik eztiat eroaiten
Nun ehitzaitan oritzen.

Itxasoan umen duzu kantazale eijer bat,
Tronpatzen ezpalinbaniz, *zirena* deitzen den bat
Hark ingañerazten tizu itxason gainti joailiak,
Ala nula ni maitenak.

Itxasoa, eguriok, paosa adi mement bat,
Ene pena ororen berri eman nahi dereiat:
Bat maitatu, eta dena kitatu bear diat.
Zortia untsa kontre diat!

Baratzian eijerrenik da arrosa lilia ;
Eren urriñak dulurutzen ene sendimentia.
Bertuterik ederrena da fidelitatia ;
Hura da ene sinestia.

Xori kantazale eijerra, kanta ezak eztiki;
Mundian zorigaitz-dunik eztuk sortu ni baizi:
Eni adio erran gabe ihes egin erriti!
Hark ditak nigarra beti.

EGUNA ZALA...

Eguna zala, eguna zala,
bart irargia zanean,
egunerako joan nintzan ni
zazpi legua bidean:
zazpi legua bidean eta
neure maitearen kalean.

Neure maiteak jaurtigi eustan
lantzea bentanarean.
Orain il bere ba-nozu eta
beatu bere naikezu,
Mari Madalen aurrean eta
Jesukristoren oiñean.

Iru letratxu bearko ditu
nire obiak ganean,
neure maiteak irakurteko
Madril'dik datorrenean.

IRU DAMATXO

Donostia'ko iru damatxo
Errenteria'n dendari...
Josten ere ba-dakite, baiña
ardua edaten obeki:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
ardua edaten obeki.

Donostia'ko Gaztelupe'ko
sagarduaren gozua !

Antxen edaten ari nitzala-
autsi zitzaidan basua:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin.
basua kristalezkoa.

Donostia'ko neskatxatxuak
kalera nai dutenian:
—«Ama, piperrik ez dago
ba-nua salto batian»:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
irtetzen dira berian.

Donostia'ko iru damatxo,
irurak gona gorriak;
sartutzen dira tabernara *ta*
irtetzen dira ordiak:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
irtetzen dira ordiak.

Donostia'ko iru damatxo
Errenteri'ko kalia,
egunez oso triste ibilli,
baña dantzatu gabian:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
bañan dantzatu gabian.

Donostiarrak ekarri dute
Getaria'tik akerra;
kanpan-torrian ipiñi dute,
Aita santutzat dutela:

eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
Aita santutzat dutela.

Donostia'ko neskatxatxuak,
mandatuen aitzekian,
mutillarekin egoten dira
kalian jolaskarian:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
pozez algara aundian.

Donostia'ko arrantzaliak
dira txit gizon bapua,
Gaztelupe'ko sagarduakin
egiten ongi traguak:
eta kriskitin kraskitin,
arrosa krabelin,
maiz bustirikan aguak.

ORAINGO NESKATXAI

Iru edo lau bertso
bear ditut jarri,
oraingo neska gazte txoruen
moda berriari.

Oingo neska gaztien
soñeko berriak
belaunetaño geien samarrak
arturik neurriak.

Eta gaiñera, berriz,

zabalik paparrak
erakustearren bularrak edo
aragi ederrak.

Gizen samar danari
eiten dio luzitu;
batzuri saiets ezurak ere
lezazke kontatu.

Paparrak zabal eta
autsak arpegian,
zankuak eta besuak ere
oso agirian.

Gona laburrak eta
atorrarik ez,
oingo neskatxen jazkera berriz
nik eiten det ames.

Eta ikusten dirade
illiak moztuta,
lujuak eta txorakeriak
dabilta poztuta.

Kokota apaindurik
daukan neskatilla,
atzetik beintzat beira ezkeru,
dirudi mutilla.

Neska zar bi zebiltzan,
juan dan jaiean,
beren kokota apaindu eta
gaztetu naiean.

Atzetik eman arren
gaztiaren antza,

arpegiako azala dute
zimurra ta latza.

Neskatx oiek artutzen
ba'dute senarrik,
oien illiak salduta ez du
artuko moskorrik.

Esposatuta ere
illiak moztzera...
Senarra, berriz, bazkarien zai
oieri begira.

Aurra bularrarian ta
illiak moztuta ;
oien begira egoten naiz ni,
oso arrituta.

Amonak emate-iote
konseju ederrik;
baiña oraingo gazte txorukin
guztiak alperrik.

Uste det egin dedala
naikua kantatu.
Zar ta gaztiak, ikasitzeko,
paper bana artu.

Abarrategi

DANTZA BERRIAK

Erdal erritik agertu zaigu
dantza jenero berria;
izan bear du, dirudienez,

moskorren batek jarria.
Baltsa du izena, eta gañera
oso da naskagarria:
begiratzeak bakarrik ere
eman lezake larria.

Moskorrak zutik juatekoan
oi du laguna albulan ;
dantzatutzeko begira nola
birritan bearko duan:
mutil ta neskatx alkar eldurik
burrukarien moduan,
alare beren ustean ezta
formalagorik munduan.

Jira ta bira zoroen gisa,
baiña pausua narvasa ;
ao batetik bestera errez
dijoakie arnasa:
batek gaitzikan ha'du izango,
dute besteak arraza ;
alkarri gaitzak egotzitzeko
orra bide txit erreza.

Lastima ere ezta txikia,
danen arpegi leunak
malaskatzea bizar zatarrak
beren dantzari lagunak;
ori guzia egiten dute
lotsa gutxiko zaldunak,
baña merezi ere bai rlama
buru-arin ta auldunak.
Emakumia, jakin ezazu,

sarri ba'zabiltz baitsiau,
jartzen zerala nolabaiteko
emakumeen klasian:
aurretik eder egiñagatik,
izango dira atzian
guraiza zorrotz kras-kras egingo
dutenak zure jantzian.

Nere iritiz, baltsio-zale
dan emakume gaztia,
nai ezpa-dvs-re, senargai gabe
geldituko da tristia:
mereziko du, usai eginta,
danak albora uztia,
santuak jazten igaro dezan
bere bizitza guztia.

P. M. Urruzurup

Ai! Ai! Ai!

Amaren alabarik	Sagar bat erreta,
munduan ba'dago,	beste bat gordiñik,
gizon kanpo ederrez	ai, zer bizi-modua
neu aserik nago.	gastaten dodan nik t
Ai! ai! ai!	Ai! ai! ai!
neu aserik nago!	gastaten dodan nik!

AITA-SEMEAK

Lagundurikan denoi	seme, azi zaitugu
gugatik il zanak,	aitak eta amak,

jbeti zure gidari
izandu geranak.
Orain Gurutze onen
oiñean esanak,
ondo goguan artu
biaituzu danak.
7iu Ameriketa'ra
joatia emendik,
Jaunak ala nai ba'du,
zer egingo det nik!
An ez dezu izango
aitik eta amik;
taiña etzera galduko
nora-naira joanik,
ez ba'zaitu aztutzen
gaur emen esanik.
Gorde zazu buruan
eta biotzian,
aitak zer esan ziztin
onuntz laguntze.m,
bitarteko arturik
Jesus gurutzean:
Jaungoikua ta ait-amak
batek aztutzean,
«z leike ondo izan
denbora luzean.
Ez nizuke utziko
joaten, egietan,

gure erlijuiua
ez ba'litz an berian.
Iritxiko ba'ziña
ain urrutietan,
erri ta eleizarik
ez dan tokietan,
oroi zaitéz Jainkoaz
leku guztietan.
Seme, izan goguan
zere gurasuak,
eta uzten dituzun
senide gozuak;
jαιο ziñan tokiko
mendi ta basuak,
euskerazko otoitzak
edo erredua;k,
erakutsiak zure
amatxo gaxuak.
Iritxi da ordua
juan bear dezuna,
ba-dakizu ait-amak
emen daukazuna;
ez dezazula aztu
gaur neri entzuna.
Itz baterako au da
eskatzen zaizuna:
izan zaitez non-nai ta
beti *euskalduna*.

Pello Mari Otañg